

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuaren arrakasta bermatzeko, oso garrantzitsua da egin behar ditugun funtsezko jarduerak identifikatzea. Jarduera horiek funtsezkoak dira gure ideiak funtziona dezan eta erabiltzaileentzat erabilgarria den produktu edo zerbitzu bat eskain dezagun.

Gure proiektuaren jarduera nagusia txip sanitarioa diseinatzea eta fabrikatzea da. Txip hori da gure ideia guztiaren gauzarik garrantzitsua, eta teknologia berritzailea eta osagai biomediko fidagarriak erabiltzen ditugu hori egiteko. Dena ondo eginda dagoela ziurtatzen dugu, produktua kalitatezkoa izan dadin eta pertsonak behar dutenari erantzun diezaiola.

Mantentze-zerbitzu on bat izatea ere oso garrantzitsua da. Txipak edo aplikazioak arazoren bat badu, gure talde teknikoak azkar eta eraginkortasunez konpondu behar du. Horrek laguntzen du erabiltzaileek gure konfiantza izan dezaten eta gure produktua erabiltzen jarrai dezaten.

Azkenik, gure aplikazio mugikorra eta web-plataforma etengabe hobetu behar ditugu. Tresna horiek oinarrizkoak dira erabiltzaileek beren osasun-datuak erraz ulertu eta kudeatu ahal izateko. Gainera, argia eta erraza bada, gure produktua erabiltzeko esperientzia askoz hobea izango da.

Laburbilduz, ez da nahikoa ideia edo produktu on bat izatea. Dena ondo ateratzeko, ondo egin behar ditugu jarduera giltzarri guztiak. Gure osasun-txiparekin arazoak prebenitzen eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzen lagundu nahi dugu, eta hori modu koordinatu eta eraginkorrean lan egiten badugu bakarrik lortuko dugu.